

Sanpedroak BERRIZen

Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaiak gunerik beroenean sartuko dira aurki. Hala ere, aurreko egunetan ere izan da zer ikusia. Iragan asteburuan, esaterako, berriztarrek euskal jaiak ospatu zituzten.

Gaztetxoen erresuma

AITOR ZUBEROGOITIA

Bai irakurle, ikusitakoak ikusita, ezin besterik esan; eta hori jaiok *in situ* bizi izan dituen batek diotsu, etzazula bestelakorik pentsa. Asteburuan, Eibarrera, Aulestira edota Berrizera, nora joan pentsatzen aritu ostean, azkenean Durango alboan dagoen herri honetara joatea erabaki genuen.

Erabat berrituta dagoen Trabakua mendatea arrapalada batean jaitsi eta autoa herri barruan aparkatzera gindoazela, estreinako sorpresa: zer egiten dute txosnek itxita? Zertarako jarri dituzte orduan? Erabat harrituta, zur eta lur, herrira jaitsi eta aurkitu genuen estreinako tabernara sartu ginen (La Fonda-ra, alegia) kanpoan euri lanbro ziztrina ari baitzuen.

Han aurkitutako panorama ez zen askozaz hobeia izan; orain artean ez dut nire burua aguretzat eduki, baina han ikusitakoak ikusita ia iritiz aldatzen ere hasi nintzen: a zer umedadea (ez hezetasuna, ume multzo handia baizik), guztiak ere litronak esponjak bailiren xurgatzen. Bazter guztietan aurki zitezkeen, balantzaka, kantuan edota alboen batean botata. Nagusienek ez zuten hamazazpi urterik izango, eta, badakizu zelan diren gauza horiek, lehen mozkorren kuota derrigorrez ordaindu behar.

Sanpedroen atariko euskal jaiak

Handik alde egin eta hurrengo tabernan ere berdin. Handik gutxira, ezagun batzuk ikusi eta eurek azaldu ziguten gertatzen

EGITARAUA

GAUR

- 18.30 Elizondon herritar askaria.
- 20.00 Donlen Atxa.
- 22.30 Zesta punta eta pala txapelketa. (Sarrera doan).
- 23.00 Drindots taldearekin erromeria.

BIHAR


- 10.00 Kalejira.
- 12.00 Meza Parrokian.
- 13.00 Dantzariak.
- 17.00 Elizondon mus, briska eta tute txapelketa.
- 20.00 Dantzariak.
- 23.00 Akelarre taldearekin erromeria.

zena: batetik, txosnak itxita zeuden jaiak artean hasteke zeudelako: jaiak Sanpedroak dira, alegia, gaur hasten direnak, eta iragan asteburuko euren atarian ospaturiko euskal jaiak zen. Horrez gain, lagunek abisua ere eman ziguten: jaietan adinen arteko proportzioa dexente orekatuago egoten bide da. Hala ere, hurrengoan beranduxeago gerturatzeko gomendatu ziguten, lehen orduetan gaztetxoek euren erresuma ezartzen dutela argudiatuta.

Horren jakitun, beraz, guk geuk ere ekin genion jaietan murgiltzeari. Ondorengo ez dizkizuegu guk kontatuko, ia-ia gaztetxoek hazainak ere gauditu baikenituen.



Jaietako lehen egunean berriztarrek enbor hau landatzen dute herriko enparantzaren erdian.



BELEN URZELAI
ARRAINDEGIA
ITURRIZA, 5 Telf.: 682 46 58 BERRIZ

berdats

loradenda

Tf.: 682 42 28

BERRIZ

Valentin LASUEN

Mertzeria Oinetakoak

Iturriza, z/g

682.40.69 tel.

BERRIZ



SERGIO S.A. BILTEGIAK

Logelak • Gelak • Sarrerako altzariak
Jangelak • Lanparak • Altzari lagungarriak

Iturriza, 40 - 42

Tel.: 94 682 41 95

BERRIZ

GAZTELURRUTIA

ARDOAK

Upategia Villabuenan (Arabako Errioxan)

94 / 682.41.08 telefonoa - BERRIZ

○ **Jaietan ere Euskaraz** ○
BERRIZKO EUSKARA BATZORDEA